

BRUNA



BRUNA

Zer esan dezaket nitaz? Gauza mordoal!
Hara! Bistakoa bistan da: ile kizkur gorri
oparoa daukat! Eta disimulatu ezin dudan
irudimena. Egun osoa ematen dut gauza
dibertigarriak pentsatzen, leku urrunetan
nagoela amesten, ezinezkoak diruditen
gauzak egiten ari naizela sinisten...
Eta hori guztia ikusi egiten da nire
ilearen artetik. Hau da, mundu guztiak
daki uneoro zer pentsatzen eta
sentitzen dudan.

Zer gehiago... Bada, neska alaia
naiz, ausarta, lotsagabe xamarra
eta ekintzailea. Agintzea gustatzen zait,
erabakiak hartzea, lagunartean egotea, jolastea,
nire aittittari bisita egitea. Eta... ba al dakizue
zer izan nahi dudan handitan?
Orkestra zuzendaria!!!